

ORIGINALAK AURKEZTEKO ARAUAK

1. Lanak **argitaragabeak** izango dira, beraz ez dute ez osorik ez horien zatiren bat argitaratuak izan behar.
2. Lanak **nazioarteko zientzia komunitatearen edozein hizkuntzatan** igor daitezke, baina bereziki Euskal Herriko hiru hizkuntza ofizialetarik batean.
3. Aldizkariaren Erredakzio Kontseiluak lan guztiei buruzko **irizpena** emango du. Horrez gain, Erredakzio Kontseilukoak ez diren bi aztertzailek, gutxienez, aztertuko dituzte lanok.
4. Originalak **euskarri informatikoan** aurkeztu behar dira Word programan (PC edo Macintosh sistemetako edozeinetan), Arial 10 neurriko letra, letra-arte bakuna (espazio bat), orga itzultze bakarra paragrafo artean eta 2,5 cm-ko bazterra ezker, eskuin, goi eta behe aldeetan.
5. Lanen luzera **14.000 hitz** ingurukoa izatea gomendatzen da. Orri guztiak zenbakituak izango dira, oharrez eta irudiz horniturikoak barne. Lanen luzera kontuan harturik, ez dira aurkibideak argitaratuko.
6. **Lehen orrialde** batean ondokoak agertuko dira: 1. izenburua letra xehetan (zortzi hitz baino gutxiagokoa, izenburuazpi batez osatua, horren beharra izanez gero); 2. horren ingelesezko itzulpena; 3. egile edo egileen bi abizenak eta izena (bigarren ponte izenaren inisiala bakarrik); 4. lanbide ezaupideak, etxeko helbidea eta posta elektronikoa barne (unibertsitatea, ikerketa erakundeak, etab., argitalpenean agertuko den helbidea izango da); 5. harremanetarako datu pertsonalak, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, baldin eta lanbide ezaupideetan agerturikoak ez badira; 6. Egilearen curriculum-a, 120 hitz baino gutxiagoa; 7. lanaren amaiera data.
7. Lanek **laburpen** adierazgarri bat eramango dute, 60 hitzekoa gehienez. Halaber, **giltza-hitzak** izango dituzte (zortzi gehienez), garrantziaren arabera ordenatuak.
8. Testuaren antolaketa egokiari begira, ongi berezirikoa ataletan zatituko da, hartarako **zifra arabiarrek** bakarrik erabiliz, ondoz ondoko maila zenbakidunetan: 1. (Letra larriak-letra lodia), 1.1. (Letra xeheak-letra lodia), 1.1.1. (Letra xeheak), 1.1.1.1. (Letra xeheak-letra etzana). Ez dira zifra erromatarrekin edo letrekin nahasi behar.
9. **Irudiak, grafikoak, taulak**, etab. euskarri informatikoan aurkeztuko dira (tiff edo jpg formatua, 300 dpi-ko bereizmena gutxienez) eta/edo landare paper edo couché mate paperaren gainean, Txinako tintaz, eskuzko idatziak eta fotokopiak alde batera utzi behar dira eta ez dira onartuko. Erreproduktzioa egin ahal izateko behar bezain handia izango da irudien tamaina (10 * 15 cm gutxienez).
Irudiek ondoz ondoko zenbakiak eraman beharko dituzte sail bakar batean eta aurretik "Irudia" (edo horren laburdura), dagokion oin edo idazkunarekin eta testuan non kokatzen den adierazten dela. Orri bereiz batean irudi guztien zerrenda jarriko da, ondokoak agertuko direla: 1. irudi zenbakia, 2. oina edo idazkuna, 3. noizkoa den, 4. egilea, 5. jatorria (artxiboa, argitalpena, etab.), 6. argitaratzeko baimena (egilearenak ez diren kasuetan).
Grafikoak eta taulak Worden sarturik joango dira. Taulak egiteko ez dira tabuladoreak erabili behar, eta bai programa horren taula aukera.
10. **Aipuak** komatxoaren artean edo letra etzanez eta testuan integraturik joango dira, gehienez bi lerro luze izango direnean. Aipu luzeagoetarako letra tamaina txikiagoa edo letra etzana erabiltzea gomendatzen da, paragrafotik bereizita eta paragrafo koskatuan.
11. **Oin-oharrek** ondoz ondoko zenbakiak izango dituzte, eta orri azpian kokatuko dira argibide oharrak direnean eta lanaren amaieran bibliografia oharrak direnean.
12. **Erreferentzia bibliografikoak** APAren arauen arabera hartuko dira:

- . MCLUHAN, M. (1964). *Understanding media: The extensions of man*. Nueva York: McGraw Hill.
- . FROMM, E.; SUZUKI, D.T. (1981). *Budismo, zen y psicoanálisis*. Madrid: Fondo de Cultura Económica.
- . VILLA SÁNCHEZ, A. (Coord.). (1988). *Perspectivas y problemas de la función docente*. Madrid: Narcea.

Kontsultaturiko bertsioa itzulpena edo aurreko bertsio bat denean:

- . OLSON, D. (1997). La escritura y la mente (tra. G. Sánchez). In J. V. Wertsch, P. del Río & A. Álvarez (Ed.), *La mente sociocultural* (77-97 pp.). Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje. [V.O.: Writing and the mind. In J. V. Wertsch, P. del Río & A. Álvarez (Eds.), *Sociocultural Studies of Mind* (95-123 pp.). Cambridge, MA: Cambridge University Press, 1995].

Erabilitako liburua jatorrizko bertsioa denean baina gure hizkuntzan, halaber, beste bertsio bat ezagutzen dugunean:

. OLSON, D. (1995). Writing and the mind. In J. V. Wertsch, P. del Río & A. Álvarez (Eds.), *Sociocultural Studies of Mind* (95-123 pp.). Cambridge, MA: Cambridge University Press. [Tra. es. G. Sánchez: La escritura y la mente. In J. V. Wertsch, P. del Río & A. Álvarez (Ed.), *La mente sociocultural* (77-97 pp.). Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje, 1997].

Erreferentzia unitate bibliografiko handiago baten atala denean:

▪ Liburu kapituluak edo atalak:

. MCLAUGHLIN, M. (1988). Ambientes institucionales que favorecen la motivación y la productividad de los profesores. En A. Villa (Ed.) *Perspectivas y problemas de la función docente* (pp.29-45). Madrid: Narcea.

▪ Artikuluak:

. CARRETERO, M.; POZO, J. I.; ASENSIO, M. (1983). Comprensión de conceptos históricos durante la adolescencia. *Infancia y Aprendizaje*, 23, 55-74.

. GIRAS, R. (8 de octubre de 2005). "Bullying", marca de prestigio. *El Mundo*, p. 36.

Lan batean lau egile baino gehiago direnean, lehen egilearen abizenaren ondoren *et al.* jarri al izango da.

▪ Entziklopedietarako Sarrerak:

. DEUTSCH, D.; GABRIELSSON, A. y otros (2001). Psychology of music. En S. Sadie y J. Tyrrel (Eds.). *The New Grove Dictionary of Music and Musicians* (2ª ed.) (vol. 20, pp. 527-562). New York: Macmillan publishers limited.

Interneten zabalduriko dokumentuen erreferentziak, aldaketak izan ditzaketen iturriei dagokienez, azkeneko berrikusteari dagokiona seinalatuko da argitalpen datatzat, eta aipamenean kontsulta egin zeneko data azalduko da. Helbide elektronikoen elementuak ez dira zurienez bereizi behar, ezta helbideak puntu batez amaitu behar ere:

. BRAVO TOLEDO, R. (1996). *Gestores personales de bases de datos bibliográficos*. En línea en <http://usuarios.bitmailer.com/rafabravo/pbs.htm>

. WINNER, J.E. (2006). *Raymond Scott*. Consulta, 7 enero 2006, en línea en <http://raymondscott.com>

Ikus-entzunezko dokumentuak (filmak, bideoak...): Zuzendaria. (urtea). *Izenburua*. [dokumentu mota]. Lekua: Banatzailea.

. DISNEY, W. (Director). (1928). *Steamboat Willie*. [Película]. Estados Unidos: Celebrity Productions Inc.

. DICKSON, W.K.L. (Director); EDISON, Th. (Productor). (1894). *El estornudo de Fred Ott*. [Película]. Estados Unidos: Edison Film Company.

13. Egileei **lehen inprimatze probak** bidaliko zaizkie, eta egileek 10 eguneko epea izango dute proba horiek itzultzeko, akatsak zuzendurik eta aldaketarik erantsi gabe. Bestela, Eusko Ikaskuntzak lana bertsio originalean inprimatu edo horren argitaratzea baztertu ahal izango du.

14. Arau hauek ez betetzeak lana ez argitaratzea ekar dezake.